

ABENDUAK 3

Pertsona Desgaituen Nazioarteko Eguna

KOMUNIKATUA:

«GAI IZATEKO EZOHIKO GAITASUNA DA

DESGAITASUNAREKIKO JARRERA»

FRATERen baieztatzen dugu errealitatea aldatzen duen jarrerak oztopoak eraisten dituela, pertsona guztiek beren eskubideak baliatu, parte hartu eta eraldatu ahal izan ditzaten. Gure leloarekin, erantzukidetasunerako gonbita egiten dugu: gizarteak eta Elizak beren jarrera egokitzen dutenean –*asistentzialismotik eta axolagabekeriatik inklusio eraginkorrera igarota*–, pertsona bakoitzaren gaitasuna azaleratu, eta guztion ongia loratzen da.

Desgaitasuna ez da arazo indibiduala, justizia sozialeko kontua da. Irisgarritasun unibertsala (fisikoa, sentensoriala, kognitiboa eta digitala), erabakiak hartzeko laguntza, hezkuntza inklusiboa eta enplegu duina ez dira mesedeak: *eskubideak dira*. Bere egiturak egokitzen dituen komunitatea benetan gai bihurtzen da: entzuteko, harekin erabakitzeke, aniztasuna indar eraldatzaile gisa ospatzeko gai bihurtzen da.

Giza eskubideekin eta eliza sinodal batekin konprometitutako mugimendu gisa, urrats zehatzak proposatzen ditugu:

Entzute loteslea: desgaitasuna duten pertsonen hitza eta botoa emanez parte hartzea eragiten dieten politikak diseinatzen diren lekuetan, pastoral programetan eta aurrekontuetan.

Benetako irisgarritasuna: tenplu, zerbitzu, komunikazio eta espazio publiko eta erlijiosoetan.

Laguntza pertsonalizatua: baliabideez hornitzea eta bizimodu independentea, familia-atsedena eta parte-hartze komunitarioa ahalbidetuko duten politikak garatzea.

Lan eta hezkuntza inklusiboak: talentua eta aniztasuna baloratzen dituzten inguruneak, lanerako benetako sarbidea eta planen zein politiken inplementazioaren etengabeko ebaluazioa.

Zaintzaren kultura: duintasuna ahalduntzen eta murrizten ez duen eta paternalista ez den laguntasuna; sufrimenduaren aurreko sentzibiltasuna, inork pena eman ez dezan.

Parrokia, elkarte, administrazio eta enpresak euren jarrera berrikustera eta begirada aldatzera gonbidatzen ditugu, galdera erraz batekin: Zer oztopo ken dezakegu gaur, txikia bada ere? Urrats bakoitzak erabaki desberdinak hartzen laguntzeko bidea irekitzen du, pertsona bakoitzak «gai izateko bere gaitasuna» hedatzeko inguruneak sor ditzan, heroismorik behar izan gabe, baldintza justuak besterik ez.

Abenduaren 3an, taldeak osatzeko, irisgarritasuna ebaluatzeko, prozesuetan laguntzeko eta aliantzak ehuntzeko prestasuna berrituko du FRATERek. Inor kanpoan geratuko ez den gizarte eta Eliza bat nahi dugu, desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea noizbehinkakoa edo apaingarri izango ez duena, baizik eta egiturazkoa eta eraldatzailea.

«Pertsona bakoitzaren dohainak entzuten, txertatzen eta ospatzen dituen komunitate baten alde».

FRATER TALDE OROKORRA